



## KORRIKA, larunbatean eskualdean barrena

Astearte gauez Urrietatik egin zuen lehen agerraldia. Larunbat arratsaldean Andoain eta Urnieta zeharkatuko ditu / 6-9

## Bertsoak, Sahara gogoan

Hurria-Sahara elkarteak antolatutako bertso saioa, igandean Bastero Kulturgunean / 14



Andoain-CII Ez Plataformak jendaurreko aurkezpena egin zuen Basteron / 2-3



SAPAKo langileak greba mugagabeen dira. Asteartean manifestazioa egin zuten Andoainen / 4



"Zuengatik gara", eskubaloia hizpide izan zuen Leizaran taldeak Bastero Kulturgunean / 12

Pailazoez oparitutako pagoa landatuko dute Urrietako euskaltzaleek, larunbat goizean / 7

Errigora ekimenak udaberriko kanpainaren datuak aurkeztu ditu, jendaurrean / 5





Plataformako zenbait kide, herri-bileraren ostean. AIURRI

# "Hirigintza plana jokoan dago"

Andoain-CII Ez Plataformak herritarrak bilera irekita deitu zituen, martxoaren 13an. Trafiko arazo larriaren harira, orain arte eman diren gertakarien kronologia gogoratzeaz gain, egun egoera zertan den deskribatu zuten Plataformako kideek

## Xabier Lasa ANDOAIN

Plataformako Edurne Ustaritzek, hemerrotekara jo zuen lehenbizikoz, Basteron bertaratu zirenei oroimena freskatzeko asmoz. Horretarako, Aldundiak 2011n aurkeztu zuen saihebidetaren proiektua hartu zuen ahotan: "Markel Olano Ahaldun Nagusiak eta Eneko Goia azpiegiturarako diputatuak esan ziguten herritarrak eta andoaindarrak erdigunean jartzen zituen proiektua zela, herriko arazoaren konponbidea zela. Prentsan ere oihartzun handia eduki zuen proiektuaren aurkezpenak, eta besteak beste, Nafarroako prentsak ederki txalotu zuen, esanez behingoz N1eko errebutak saihestu ahal izango zirela, denbora aurrezteka ekarriko zuela, Donostia eta Iruñea modu eroso batean batuko zituela, eta abar".

Plataformako kideek argi adierazi zuten 2011an Aldundiak onetsi eta Andoaingo udalak Hiri Antolamendu Plan Orokorre (HAPO) bildu zuen saihebidetaren proiektua oinarri hartzea litzatekeela irtenbiderik egokiena, behar diren moldaketak eta eguneraketak eginda.

Andoni Etxezarreta Plataformako kideak, 2011ko proiektuaren nondik norakoak azaldu zituen. "Saihebidetaren errepidea Belkoain aldera eramaten zuen, eta aukera paregabea ematen zuen herriak irabazi zituzten egungo azpiegiturak okupatzen dituzten lur sailak; bost hektarea irabaziko genituzke hain zuzen, hara eraman ahal izateko herriaren onurarako hainbat ekipamendu eta bidegorria. Gainera, HAPOk 2.000 etxebizitza aurrikusita zeuzkan, eta horietatik 1.000 Ama Kandi-

da etorbideko eta SAPAko guneen artean. Egun, Ama Kandidako hirigintza proiektu garrantzitsua garatzen ari diren arren, herriko hainbat eremuekin konexio errazik ez zaio aurreikusten, CII proiektuak aurrera egingo balu".

Mugikortasun alternatiboari dagokionez, Urnietatik hasi eta ikastolako ingurutik igaro ostean, Adunara iristen den bost kilometroko bidegorria eskaintzen zuela 2011ko saihebidetaren proiektuak ohartarazi zuen Etxezarretak. "Era horretan, Andoainek 12 kilometroko bidegorri sarea beregana zitzakeen guztira, eta, Gipuzkoako sarearen ardatz nagusia Andoaindik igaroko litzateke".

**Baztertzeko arrazoi sendorik ez** 2011z geroztik, urteak igaro ahal, ordea, proiektua baztertu

egin zuen Aldundiak. Arrazoiak ez direla garbi argudiatu salatu zuten Plataformako kideek. "Proiektua gauzatzeko konplexutasun teknikoak, ekonomikoak edo ingurumenekoak aipatu izan dituzte. Baina, erabaki hori sostengatzen duen txostena eskatu zaienean, ez digute eman; badirudi ez duela existitzen. Egia esan, ez dugu argudio seriorik topatu desegokia zela sinetsi dezagun", azaldu zuen Ustaritzek. Plataformaren susmoa zein den adierazi zuen Ustaritzek, segidan: "Gure ondorioa da aukera merke eta azkarra topatu dutela. Badirudi Europatik belarri tiradizoa jaso dutela auto pilaketa jasanezina dela eta. Guztiok aztoratzen gaituen gaia da hori dena esatera, eta Aldundiak irtenbide azkarrenari eta merkeenari heldu dio".

Gauzak dauden bezala, Ainhoa Aiartzak esan zuen edozein irtenbide ez lukeela baliagarri izan behar. "Herriaren hirigintza plana jokoan dago, eta ez digu edozerk balio. Herri osoari eragiten dion arazoa da; erabat kolokan jartzen baitu bere etorkizun ekonomikoa, soziala... Arazoa Urumeako saihebidetarako sortu zuen, ez Andoaingo herriarrek, eta orain ez da nahikoa Bazkardoko korapiloari eta auto pilaketari irtenbidea ematea, adabaki hutsa bilakatzea. Eraginorra eta etorkizuneko behar du izan irtenbidea, andoaindarrak erdigunean jarrita, ez horien gainetik pasata. Kontuan hartuta inbertsioaz ari garela, ez gastuez".

Gipuzkoan abian diren beste zenbait proiektu hartu zituzten gogoan, Basteron egindako bilera informatiboan. Hala nola, Donostiako Metroa (180 milioi), Arrasate eta Elorrio batuko dituen Kanpazarreko tunela (120 milioi), Pasaiako 12 proiektu desberdin (162 milioi), Gipuzkoako AHTko zatia (1.983 milioi) edota, Zarautzeko saihebidetaren (9 milioi). "Premiazkoak izango dira guztiak, jakina, eta bideratu dituzte horietara aurrekontuak. Bada, noizko andoaindarrontzat inbertsio publikoren

**"NOIZKO INBERTSIO PUBLIKOREN BAT ANDOAINEN? GEUK ERE ZERGAZ ORDANTZEN DITUGU"**

bat? Geuk ere zergak ordaintzen ditugunez, ez al dugu merezi?", galdetu zuen Aiartzak.

## Alegazioei esker CII-an ezarritako aldaketak

Aldundiak CII-a 2002ako udal lehen aldiz aurkeztu zuenetik udalak, herri elkarteek eta herritarrek aurkeztu izan dizkion alegazioak ere aipagai izan zituzten Basteroko ekitaldian. Etxezarretaren hitzetan, "CIIak egungo errepideari eusten dio funtsean, A15a eta N1a lotzeko orduan. Egungo errepideari errei gehiago eransten dizkio, Bazkardo-SAPA aldean konexioa egiteko 700 metroko biaduktoa ezartzen du, Mimendiko etxebizitzaren aurrean tunela ezartzen du... Bestalde, azken urtetan egin diren alegazioen eskutik, zenbait neurri zuzentzaile erantsi dizkiote, hala nola, Mimendiko parean Donostiako norabideko errepidea estalkia jarri diote, Ikastolako errebutela zuzentzen dute pittin bat, Sorabillako sarbideak aldatu ditu...".

## Udalak onartutako bi mozio

Aldundiak C2 proiektua aurkeztu zuenetik, Plataformak aurkeztu eta udalak gehiengoz onartu izan dituen bi mozioak ere gogoan hartu zituzten Basteron. Bi mozioen eskutik Aldundiari jakinarazi zaio Andoainek trafikorekin eta zaratarekin daukan arazoa larria, eta eskatzen zaio 2011ko aurreneko proiektuari eutsi diezaiola, gainerakoan, Andoaingo hiri garapena eta barruko mugikortasuna galarazten delako.

## Andoaingo Udalaren eta elkarte Lan-Mahaia

Udaleko ordezkari politikoei eta herriko eragileek (Ikastola, Sorabillako Auzo Elkarte, Andoain-CII Ez Plataformak) Lan-Mahaia osatu zuten 2023ko urrian. Hiru aldiz bildu dira dagoeneko, eta Etxezarretak artean eman diren urratsak azaldu zituen. "Udalak zenbait konpromiso hartu ditu mahaian. Bata, zarataren eta kutsaduraren neurketak egitea izan zen, eta egin dira. Zaratari dagokionez, emaitzek adierazten digute iraganeko datuek okerrera jo dutela. EAEko araudia kontua hartuta, herrian 150 etxebizitza daude, egun osoan eta egunero, arauk diotena baina



zarata handiagoa jasaten dutenak". Bestalde, Etxezarretak Ikastolako parean ipini diren pantailak izan zituen aipagai. "700.000 euroko inbertsioa egin da pantailekin, eta hobetu da egoera; nolahi ere, ez gara iristen arauak markatzen duten estandarretara; dezibelioetan, bostetik gora daude Ikastolan".

Kutsadura atmosferikoa ere aipagai izan zuten. Ustaritzek esan zuenez, "egin dute azterketa, baina zaratarena baino konplexuagoa denez gai hori, azterketa egin duen enpresak agindu digu, aurrerago, jendeaurreko aurkezpena egingo duela emaitzak eskuetan edukita".

#### Proiektu alternatiboa aztergai

Madrilgo Kongresuan proiektu berri bat aztertzeke 2023rako onartu ziren 470.000 mila horiek

nola kudeatuko diren ere mahaian aztertu dela eta proiektu berri bat aztertzeke prozesua martxan dela aitortu zuen Etxezarretak: "Oinarriek jasotzen duten baldintza bat da 2011ko saihebidereen proiektua oinarri izanda aztertu behar dela proiektu alternatiboa. Lehiaketara atera da jada, eta bi enpresa aurkeztu dira. Pozik gaude, ze beldur ginen ez ote zion inork erantzungo, jakinda enpresek administrazioarentzat lan egin ohi dutela, eta oraingoan, nolabait, zalantzan jartzen dela Aldundiaren proiektu ofiziala".

Urtea amaitu aurretik proiektu alternatibo hori gauzatuta egotea espero dute Plataformako kideek. "Hori gertatzen denean, Aldundiari eskatuko diogu bi proiektuak aldera ditzala, eta Andoaingo herriarentzat eta

herriarrentzat mesedegarriena dena hautatu dezala, berari baitagokio eskumena".

#### Herritarrek mugitzen jarrai dezaten mezua

Andoain CII-Ez Plataformako kideek, hurrengo aste eta hilabeteetan adi-adi egoteko mezua helarazi zien Basterora bertaratu ziren entzuleei, eta Andoaingo herritarri oro har. "Mobilizazioak, proposamenak, alegazioak... Orain arte baliagarriak izan dira, eta aurrerantzean ere bide horri eutsiko diogu".

### BASTERO KULTURGUNEKO HITZALDI OSOAREN BIDEOA IKUSGAI DAGO AIURRI.EUS GUNEAN



Joan zen abenduan postua ipini zuten, kalean. AIURRI



**Sustrai Colina**  
**Amets Arzallus**  
**Lierni Rekondo**  
**Oihana Iguaran**  
**Aitor Mendiluze**  
**Maialen Lujanbio**

Gai jartzailea:  
**Maddi Etxeberria**

# SAHARAREN

## ALDEKO BERTSO SAIOA

**Andoaingo Bastero Kulturgunean**  
**Martxoaren 24an**  
**12:00etan**

Sarrerak salgai:  
Delgado, Ernaitza,  
Stop eta Urrats  
**8.00€**

**Antolatzaileak**



**Laguntzaileak**







## TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



Manifestazioak Andoaingo kaleak zeharkatu zituen, astearte goizean. AIURRI

# SAPAKo langileak greba mugagabeen dira

SAPA Operaciones enpresako hitzarmena berritu gabe dago 2012tik, horiek horrela, langileak kalera irtetzen ari dira eta hainbat ekintza egin dituzte; besteak beste, manifestazioak, auto-karabanak edota Anoeta futbol zelaiaren elkarretaratzea

**Mikel Arberas** ANDOAIN

"Aperribay paktua bai" lemapean hartu dituzte kaleak. Horrez gain, Sapa Borrokan izeneko sare sozialak jarri dituzte martxan, egiten zein egingo dituzten ekintzen berri emateko eta zabalduaren bitartez herritarren babesa jasotzeko.

Langileek martxoa hasieran zabaldu zuten oharraren arabera, "soldata alorrean igoerak adostu badira ere, urte hauetan enpresak ez du bestelako negoziaketetan sartu nahi izan.

Aurtengoan negoziaketek aurrera egin behar zutela adierazi genion enpresari, baino legeak gutxienez derrigortzen duena soilik aplikatuko duela argi utzi digu".

Horrez gain honako hau adierazi zuten, irmo: "Enpresari ozen esan nahi diogu, ez dugula lan zein soldata diskriminaziorik onartuko eta dagokiguna lortu arte borrokan jarraituko dugula". Salatu dutenez, "enpresako jabea den Aperribay jaunak harrotasun handiz dio

SAPA punta-puntako enpresa dela eta nazioartean erreferentzia dela. Gure lan-baldintzak aldiz, puntakoak izatetik oso urrun daude eta langileon haserrea geroz eta nabariagoa da".

Hainbat herritarrek, LAB sindikatuak eta Gazte Koordinadora Sozialistak beren babesa erakutsi diete langileei. Bestetik, kalera irteten jarraituko dutela adierazi dute langileek, paktua berritzeko eta dituzten eskakizunak entzun ditzaten.

## GUTUNA

JAVIER BARRIENTOS SÁNCHEZ ZABAETA AUZOAN, URNIETA

## Zabaleta auzoko bizilagunen kexa

Duela pare bat hilabete, zuengana jo nuen Urnietako Zabaleta auzoko bizilagunok orain urte askotatik pairatzen ditugun zikinkeria, zarata, kutsadura eta bide-arriskugarritasunaren arazoak berri emateko. Laburbilduz, mota guztietako hondakinak garraiatzen dituzten 400 kamioi inguru igarotzen dira egunero gure auzotik, bizilagun batzuen leihotatik metro erdira.

Gaur, zuengana jo behar dut berriro, eta zuen irakurleei jakinarazi nahi diet, hainbat hilabete saiakeraren ostean, zirkulazio horretarako txosten eta baimen batzuk lortu direla. Tamalgarria izan da emaitza:

1. Bertan dauden enpresen jardura-lizentziak Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-txostenetan oinarritu dira, eta txosten horiek ez dute kontuan hartzen kamioi horiek nondik igaro behar zuten ere.
2. Enpresa arduradunek ez zuten halabeharrezko baimenik eskatu beren kamioiekin tona horiek onartzen ez dituen errepide batetik zirkulatzeke.
3. Gipuzkoako Foru Aldundiari ez dio batere axola arau hauste horrek, orain emango baitizkie

baimen horiek, inolako zigorririk gabe. Eta are okerragoa dena, Zabaleta auzotik pasatzen jarraituko duten egiaztatzeko ezer egin gabe, gaur arte gertatu den bezala, baimenduta egon ala ez.

Badirudi Urnietako Udalak, azkenean, serio hartu duela arazoa, eta, diotenez, duela 5 urte onartutako bidea eraikitzeke prozesua azkartuko dute. Horrek, neurri batean, auzoaren bizigarritasunik ezaren egoera latza arinduko luke.

Otoitz egitea besterik ez zaigu geratzen, sor daitezkeen eragozpenek obra hori berriro atzeratu ez dezaten. Izan ere, jakin dezazuen, ez Gipuzkoako Aldundiak, ez Urnietako Udalak, ez Eusko Jaurlaritzak ez dute eragotziko, bien bitartean, kamioi bakar bat igarotzea, baimenduta egon ala ez.

Espero dut trafiko-istripurik deitoratu behar ez izatea, ezta Zaldibarko zabortearen kasu tristea gogoratzea ere.

**ERAKUNDEEI  
EGINDAKO ESKAEREN  
ALDETIK JASOTAKO  
EMAITZEN ERANTZUNA  
TAMALGARIA IZAN DA**

## KOMUNITATEA

ERRIGORA EKIMENA

# Geureari eutsi diogu udaberriko kanpainan

Udaberriko Nafar hegoaldeko uzta, ESKUTIK ESKURA kanpainan eskaerak egiteko epea itxita, komunitatearen atxikimendua sendotu dugula adieraz genezake.

- 10.000 etxetako despentsak betetzeko eskariak jaso ditugu.
- 127.000 litro olio izan dira eskatutakoak.
- 26.000 kontserba-, lekale-, arroz-, pasta- eta ardo-lote dira eskatutakoak.

Azken hilabetetan agerikoa izan da bai elikagaien prezioen eromena eta bai nekazal munduaren itolarria ere. Merkatu logikak eragiten dituen zailtasun hauen aurrean bestelako merkaturatze eredu bat praktikatuzeko aukera izan da udaberriko kanpaina.



Errigorakoak Cadreitan, 767. kilometroan, KORRIKA bertatik igaro zenean. ERRIGORA

EUTSI GEUREARI! Ilolean egin genuen hain zuzen deia kanpainan parte hartu eta eskaerak egiteko;

zailtasunez jakitun, gure ahaletatik ametsetarako bidea marraztu ez ezik, bidea egiten jarraitu genezan.

Bada eutsi diogula esan dezakegu, jasotako emaitzak ikusita.

Egunotan Korrika martxan da bidez-bide. Eta udaberriko kanpainak, euskaraz kontsumitzeko aukera suposatzeaz gain edo ekoizle etxeetan euskara planak ezartzeko bultzada ekartzeaz gain, badu lekukoa eskuz-esku eramatearen antzekotasunik! Badu HARROtasunetaik eta badu HERRItk! Ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko auzolan hau beste behin gauzatzea bera ahalduz ariketa bat da, ahalak metatzen jarraitzekoa. Eta aurrera begira jarrita zergatik ez amets berriak marraztu? Nekazarientzat lan baldintza duinagoak eskuratzea bezalakoak; edo

merkatu logikatik ateratzeko ekoizle eta kontsumitzaileen arteko epe-erdiko akordioak bezalako ametsak edota kontsumo-elkarte eta eragileekin aliantza-sareak osatzea bezalakoak. Eta zergatik ez ekoizpen- eta elaborazio-bitarteko kolektiboak eskuratu? Lurrak erostea, lur komunaletan hitzarmenak lortzea, ontziratzeko azpiegiturak gureganatzea, olio errota komunitarioak sustatzea... Zergatik ez?

Datozen asteetan ERRIGORA BALIOAK zigupean ([errigora.eus/](http://errigora.eus/) identifikatzailea) Euskal Herriko ehundaka herritar iritsiko dira eskatutako produktuak paletetan atonduta, eskuz esku banatzeko.



## MARTA ZALACAIN SANCHEZ

Donostia | 21 urte

Gradua:  
Ingeniaritza Biomedikoa

### ZALETASUNAK:

Musika entzutea, bidaiatzea, lagunekin/familiarekin egotea, jabetxeetara joatea, saskibaloian jokatzeko.

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)



## “Mondragon Unibertsitatean oso metodologia praktikoa erabiltzen dugu”

**Ingeniaritza Biomedikoa graduko 4. mailan zaude: zergatik aukeratu zenuen gradu hori eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?**

Ingeniaritza biomedikoko gradua aukeratu nuen, ibilbide berritzailea eta irteera askoko bat hartu nahi nuelako. Banekien ingeniaritza bat egin nahi nuela eta, biologia ere gustatzen zaidanez, Ingeniaritza Biomedikoa alderdi horiek guztiak biltzen zituen gradua zela pentsatu nuen. Bestalde, Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen ingeniaritzetan duen prestigioagatik eta erabiltzen duen metodologia berritzaileagatik.

**Nolakoa izan da orain arte bizitako esperientzia?**

Oso ona. Gainera, ikasgelan talde trinkoa eratu dugu, eta horrek esperientzia guztia hobetzea ekarri du.

**Zer metodologia erabiltzen duzue, nolakoa da?**

Oso metodologia praktikoa erabiltzen dugu. Lauhileko bakoitzeko azken astea do hilabeteetan PBLak egiten dira. Lauhilekoan emandako teoria guztia praktikan jartzen da proiektu horietan.

**Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?**

Metodologia, batez ere, teorikoa baino praktikoagoa delako, eta benetan ikasten duzulako. Eta, bestetik, eredu DUALa, aldi berean ikasteko eta lan egiteko aukera ematen baitizute eta esperientzia gehiago hartzen duzulako.

Eta hobetzeko... oraintxe bertan ez zait ezer bururaten.

**Etorrizunari begira zer asmo dituzu?**

Oraindik ez daukat argi, ez dakit master bat egingo dudan edo zuzenean lanean hasiko naizen.





Astearte gauean, dozenaka herrikide atera zen kalera, KORRIKArekin bat egitera. Argazki-bilduma eta bideoa ikusgai dago Aiurri.eus webgunean. AIURRI

# Dozenaka lagun, gauez, korrika, astearte buruzurrian

Euskararen aldeko ospakizun ederra izan zen, joan den asteartean, Urnietan. Hernaniarren eskutik iritsi zen KORRIKA herrira, Lasarte-Oriaranzko bidea hartzeko. Larunbatean, lekukoa berriro igaroko da herritik

## Erredakzioa URNIETA

Emozioen festa erraldoia izan zen joan den astearte gauean Urnietan. Estreinakoz, KORRIKA igaro zen herritik, eta harrera bero-beroa egin zioten urnietarrek lasterketa jendetsuari.

Urduritasuna nabari zen bezperako momentuetan, eta makina bat herrikide ari zen segitzen AEKren zuzeneko emisioa, euskararen aldeko aldarria, Hernanitik, pixkanaka, beren herrira nola gerturatzen ari zen ikusteko. Jende mordoxka bildu zen Mandazubiko biribilgunean, eta, herrigunera hurbildu ahal, geroz eta urnietar gehiago batu zen olatura.

Egape Dantza Taldeak hartu zuen lekukoa, hernaniarren eskutik, herriko lehen kilometroan, eta, tipi-tapa, tipi-tapa, AEK euskaltegiari pasa zion txanda. Langardako biribilgunetik aurrera, eta, Zabaletan barrena ibili on-

doren, Urnieta Bidea hartu zuen furgonetak. Hortxe ziren, lasterketa noiz iritsiko zain, zirraraz bezain urduritasunez, ziren Aiurriko lagunak. Aldapa gorako korrikaldia tokatu zitzaion tokiko komunikabideari, baina hori ez zen oztopo izan zertxobait aurrerago ziren Zanpatuzeko kideengana iristeko. Hala, izerdiak izerdi, erritmo paregabea eta KORRIKAren aldeko oihuak botaz iritsi zen mendizale elkar-tea Urnietako Kirol Elkartarengana. Zein baino zein pozago zen errepidean eta kirol-taldeak eman zion amaiera herriko kilometro-tarteari.

Aje emozionalarekin egongo dira asko eta asko herrian egunotan. Baina, lasai, irakurle, festa hasi besterik ez baita egin. Larunbatean, berriro igaroko da lasterketa erraldoia, oraingoan bai, herriko zirrikitu guztiak zeharkatzeko asmoz. Prest?



## Lekukoaren eramaileak

Egape Dantza taldekoek hartu zuten lehen lekukoa, Mandazubitik gertu. Langarda parean Urnietako AEK-k eman zion segida lekukoari eta haiek beren aldetik, Zabaleta aldean, Aiurri eta euskaltzaleen komunitateari pasa zioten testigua. Oztaran auzunean gora, Zanpatuz elkarte eta Urnieta Kirol Elkarte izan ziren, hurrenez hurren, lekukoaren eramaileak.

Larunbat arratsaldean Urnietako eragile berrien txanda iritsiko da, bigarren aldiz igaroko baita. Oraingo honetan Andoain aldetik hurbilduko da, Hernanirantz abiatzeko.



Aratz Cabanillas eta Nora Agirre Egape Dantza Taldeko kideak, lekukoaren zain. AIURRI



Marimotots, Argiñarena, Tapia eta Porrotx pagoa alboan dutela. AIURRI

## Zuhaitz landaketa, larunbatean

Aurreko ostiralean, Porrotx eta konpainia Saroben izan ziren, "Ez gara jaitsiko" ikuskizuna eskainiz. Aiurrik, AEK-k eta Urnietako euskaltzaleek antolatu zuten, Udalaren eta Saroberen lankidetzarekin. Ekitaldiaren amaieran, pailazoen pago kimua oparitu zieten antolatzaileei. Koldo Tapiak eta Fermin Argiñarenak jaso zuten zuhaixka, eta dagoeneko landaketa noiz egin erabaki dute. Larunbat honetan izango da, goizeko 10:30ean, Urnietako Kioldegiaren ondoan dagoen basotoxoan. Udalerriko haur eta gaztetxoak landaketan parte hartzea gonbidatuta daude. Egun berezia izango da, larunbatekoa, KORRIKA Urnietan barrena murgilduko baita. Ez dugu ahaztu behar pailazoen emanaldia KORRIKA KULTURALaren baitan antolatu zutela.



Unai Legarreta, Zanpatuzen lekukoarekin. Alboan ditu Jokin Lizeaga eta seme-alabak eta Mikel Legarreta anaia. AIURRI



Urnietako Kirol Elkarte kirolari gazteak, Lasarte-Oriaranzko bidean. AIURRI



Alba Cabrera Jauregi Aiurriko kazetaria eta Jaione Jauregi euskaltzalea. AIURRI

## Harro herri Aiurri Korrika

Aiurrik Zabaleta auzunean hartu zuen lekukoa, astearte gauetz. Aurreko edizio guztietan, Larramendi Bazkunarekin batera, Andoain aldean parte hartu ohi du KORRIKA. Alabaina, aurtengoan, Urnietan ere eraman du. Eta arrazoiak, nagusiki, bi dira. Lehena, efemerideari lotuta dago. 2004an abiatu zen Aiurri astekaria Urnietan, euskarazko tokiko prentsari dagokionez udalerrian zegoen hutsunea betetz. Hogei urteko ibilbidea osatu du, beraz, Aiurrik. Bigarren arrazoiak azken hilabeteotan gorpuztu den euskaltzaleen sareari eskertza adieraztea izan da. "Aiurri urnietarra da" izenburupean, herriko gizarte eta kirol mailako eragile ugari agertu da Aiurriarekin bat. Haiei guztiei eskerrak emateko modua izan zen euskararen lekukoa hartzea. Aiurritik Alba Cabrera Jauregi kazetariak eraman zuen, eta herri eragileen izenean Jaione Jauregi Garmendia euskaltzaleak.





Peto-potea, 2017an. Lasarte-Orian eta Zubietan egin bezala, Andoainen ere gogoan hartuko dute Aitziber Ugartemendia. AIURRI

# Iristear da euskararen aldeko ekimenik ederrena

Egunotan, bat baino gehiago dabil KORRIKAren ibilbidearen zuzeneko jarraipena egiten. Larunbatean lasterketarekin bat egiteko aukera paregabea izango da, etxe paretik igaroko baita. Bazkalostean Andoaingo herrigunea zeharkatuko du

## Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Euskararen alde ekimen ugari ditugu herrian, eta azken urteotan Euskaraldia eta Gau Beltza txertatu dira euskal kulturgingizaren agendan.

Bada, oraindik orain, euskararen aldeko ekitaldi guztien artetik nabarmentzen dena, eta hori KORRIKA da. Emozio biziko unea da, lasterka eta oihiu ginez burutzen dena.

Larunbatean ehunka herrikidek egingo dute bat KORRIKA-rekin. Euskaraz bizi den komunitatearentzat garrantzi handiko eguna izango da, zalantzarik gabe.



andoaINDARRA  
euskaraz

## Martxoak 21 | Peto-potea Andoainen

NON	NORK
Goikoplaza	Aita Larramendi ikastolako ikasleak
	La Salle-Berrozpe ikastetxeko ikasleak
	Oroituz, Andoainen elkarte
	Ezker abertzalea / Irunberri
	Kirol taldeak
	Sega
	Punttuka/Maizorri
	Asanblada Feminista
	Aita Larramendi ikastolako langileak
	La Salle-Berrozpeko langileak
	Hurria-Sahara
	Mintzalagunak
Andoaingo Udala	
Juanita Alkain plazatxoa	Andoaingo emakumeak
	Lebiton konpartsa
	Axeri Dantza
	Ondarreta-Leizaran ikastetxeak
	Urki dantza taldea
	Aita Larramendi ikastolako batzordea
	EH Bildu
	EAJ
	Ahal Dugu
	Andoaingo Udaleko langileak
Zuena elkarte	
Zubiaurre	Larramendi Bazkuna / Aiurri
	TKE enpresako langileak
	Zumeatarra elkarte
	Kotoi elkarte
	Peña Santa Krutz elkarte
	Zumeatarra Kirol Elkarte
	Leizaran Eskubaloia
	Ganbara Saskibaloia
	Gazteleku Pilota Eskola
	Leitz
	Euskalduna Futbol taldea
	Euskalduna Mendigoizale Elkarte
	Andoaingo Gaztetxea
Pixel	
Arrospe	

Andoaingo Korrika Batzordeak jendaurreko ekitaldi bilakatu du lekuko-eramaileen peto banaketa. Ostegun honetan, Goikoplazatik abiatuko da peto-potea, arratsaldeko 18:00tan hasita. Ibilbidean batuz joango zaizkie lekuko eramaileak. Azkenik, petoak banatuko dituzte Zumea plazan arratsaldeko 19:00tan hasita.



## Martxoak 23 | Kilometroa, lekuko eramailea eta ibilbidea

KM	NORK	NON
2459	15:56:00	Adunako bide zaharra, Balastrain industrigunearen sarrera
	<b>Ikastolako ikasleak</b>	
	<b>La Salle Berrozpeko ikasleak</b>	Adunako bidearen hasiera
	<b>Oroituz</b>	Aiztondo kalearen hasiera
2460	16:03:00	Ezker abertzalea / Irunberri Aiztondo/Gurmendi bidegurutzea
	<b>Gazteleku, Leizaran, Zumeatarra, Ganbara, Leitz, SD Euskalduna, Euskalduna MT</b>	Nairu taberna
	<b>Sega</b>	Kike ikelpaindegia
	<b>Punttuka / Maizorri</b>	Urrats inprimategia
	<b>Asanblada Feminista</b>	Txuri-beltz taberna
2461	16:09:00	Andoaingo emakumeak Bekoplaza, Jauregi etxea
	<b>Erraldoien konpartsa</b>	Bus geltokia, Leizaur parkea
	<b>Axeri Dantza</b>	Bastero Kulturgunea
	<b>Ondarreta-Leizaran</b>	Dr Huitzi / A. Leitza eskailerak
	<b>Urki</b>	Dr Huitzi eskilara mekanikoak
	<b>Ikastolako langileak</b>	Dr Huitzi / Aita Larramendi ikastola
	<b>Ikastola batzordea</b>	Dr Huitzi / R. Arregi bidegurutzea
	<b>EH Bildu</b>	Andoain biribilgunea
2462	16:19:00	EAJ Agustín Leitza / Pio Baroja bidegurutzea
	<b>Ahal dugu</b>	Pio Baroja / Iturzaeta bidegurutzea
	<b>Udal langileak</b>	Arteta / R. Arregi bidegurutzea
	<b>Zuena</b>	A. Leitza aparkalekua
	<b>Andoaingo Udala</b>	A. Leitza amaiera
2463	16:24:00	La Salleko langileak La Salle / Erroitx bidegurutzea
	<b>Larramendi Bazkuna / Aiurri</b>	Erroitx kalea bidegorriaren hasiera
	<b>TKE langileak</b>	Arantzubiako biribilgunea
	<b>BERRIAko langileak</b>	Kaletxikiko tunela igarota
2464	16:31:00	Martin Ugalde Parkekoak Martin Ugalde kultur parkea
	<b>Kotoi, Santa Kruz eta Zumeatarra elkarteak</b>	Suguz
	<b>Hurria-Sahara</b>	Ensueños
	<b>Emeki</b>	Aranaztegi baserria
2465	16:39:00	Mintzalagunak Braher
	<b>Pixel</b>	Super Amara
	<b>Arrospe</b>	Biribilgune handia
2466	16:45:00	Moldeberri ISN enpresa / ITVko biribilgunea
2467	16:49:00	Magale ikastetxea ITVko biribilgunea / Elkarteen etxea
2468	16:53:00	Egape Ikaskola Elkarteen etxea / udaletxea
2469	16:56:00	Urnietako Udala Udaletxea / Idiazabal kaleko bidegurutzea
2470	16:59:00	Poxta Zahar Idiazabal kaleko bidegurutzea / Egur
2471	17:01:00	EH Bildu Egur / Autobus geltokia
2472	17:02:00	EAJ Autobus geltokia / Langardako biribilgunera
2473	17:03:00	INER Langardako biribilgunea / Langarda erdialdea
2474	17:06:00	Lehenengoak Langarda erdialdea / Hernani biribilgunea

## KORRIKari loturiko hitzorduak, Andoainen eta Urnietan

Lasterketa ezaguna bertatik igarotzen dela baliatuta, ospakizunak iragarri dituzte bi udalerrietan

### ANDOAIN

#### MARTXOAK 21

##### OSTEGUNA

18:00 Peto-Potea. Goikoplaza.  
19:00 Petoen Banaketa Zumean.

#### MARTXOAK 22

##### OSTIRALA

09:30 Korrika Txikia.  
Goikoplaza-Goikoplaza.  
11:30 Korrika Gaztea:  
Zumea-Goikoplaza.  
Bideo-Eskolako DJak.

#### MARTXOAK 23

##### LARUNBATA

12:00 Lebiton konpartsa, Zumeatik  
Juanita Alkainera.  
13:00 Kalejira: DJ Track-a  
Goikoplazatik Zumeara.

15:45 Korrika Andoain Barrena.  
17:00 Malkogarriyak, Zumean.  
20:30 Kantu Afaria, Batzokian.

### URNIETA

#### MARTXOAK 22

##### OSTIRALA

10:30 Korrika Txikia, Goi Menditik.

#### MARTXOAK 23

##### LARUNBATA

10:30 Pagoaren landaketa,  
Kiroldegi ondoko basotoan.  
11:30 EDTren ikuskizuna, musika  
eskolako lagunekin. Bertako  
produktuen dastaketa Poxta  
Zaharreko lagunekin.  
16:45 Korrika Urnietan Barrena.  
17:30 Etxeberri plazan, Potxin eta  
Patxin "Baserrian".  
18:30 Zaldundegi plazan,  
Nemux DJ.

21. korrika  
HARRI  
BERRI

**KANTU AFARIA**

**MARTXOAK 23**  
ANDOAINGO BATZOKIAN  
20:30etik aurrera

Txarfelek auzer eskuratu behar dira  
Martxoak 16 baino lehen  
(688 803 665)

**35 €**  
Menua:  
Zizka-mizkak  
Entsalada epela  
Txahal masalik saltzan  
Postrea  
Kafea + Kopa

ENDOAINGO BATZOKIA













AIURRI

## Bolada onari eutsi nahi diote

**FUTBOLA** Zazpi garaipen jarraian lortu ondoren, iritsi zen berdinketa. Zortzi jardunaldi, beraz, galdu gabe. Gaztañagak zuzentzen duen Euskaldunako lehen taldeak bolada onari eutsi nahi dio. Larunbat honetan Aloña Mendi taldea hartuko dute Ubitarten (18:00). Aste Santuko oporraldiari ekin aurretik, hiru puntu gehiago lortuta bigarren postua sendotuko lukete.



ANDOAINGO

## Albiste gazi-gozoek

**TXIRRINDULARITZA** Espaniako kopako bigarren proba ospatu zen Beasainen, eta, bertan, Andoaingo Eskolako Ixiar Alkain, Irati Aranguren eta Intza del Teso irteeran izan ziren. Bigarren sailkatu zen Aranguren. Izaro Etxarri Italiako Piccolo trofeo Bindan izan zen. Erorketa izan zuen, ordea, eta erretiratu egin behar izan zuen. Zorionez, ez zuen minik hartu.

## Partida ugari Allurralden

**SASKIBALOA** Infantil, kadete eta junior mailako partidak jokatuko dira etxean. Seitik lau talde ariko dira Allurralden, eta gainerako biak kanpoan.

Larunbat honetan:

09:00 Akerbeltz InfM-Erroitzbide

10:30 Justino JunM-Askatuak

Igande honetan:

09:00 Ganbara KadM-Luberri

10:30 Ganbara Imaz InfN. Erroitzbide



AIURRI



Alex Gago. UKE

## Onenen aurka garaile ari da Leizaran Ernio Inmobiliaria

**ESKUBALOA** Igoera fasea eskuratzeko puntu bakarrera dago Andoaingo mutilen taldea

**Erredakzioa** ANDOAIN

Hiru partida besterik ez dira falta Lurraldeko lehen mailako liga amaitzeko eta Andoaingo taldea bikain ari da. Hemeretzi partidatik hiru galdu ditu, soilik. Eta azken asteotako joera bikaina da, sailkapenaren gainkaldeko biak gainditu dituelako.

**Urnieta Artola Harategia**

Garaipen garrantzitsua eskuratu zuen etxetik kanpo, aurreko asteburuan, Decotextil Euskadi Donibane taldea irabazita (28-29). Ligako seigarren garaipena eskuratu zuten, eta liga amaitzeko hiru jardunaldiren faltan jaitziera postuetatik lau puntura urrundu dira.

### SAILKAPENA

1	Laubide Legazpi	32
2	Leizaran Ernio	29
3	Ordizia	27
4	Soraluze	24
9	Donibane	15
10	Urnieta	13
11	Aritzatalde	9
12	Elgoibar	0

**Garrantzia handiko partidak**

Ostiral honetako jardunaldia garrantzitsua izango da bi taldeentzat. Urnietako taldeak Bidasoa jasoko du etxean (19:15). Leizaranek, berriz, Donibane taldea (20:45).



EHIZA

## Ehiza Ibilaldietako Kopa

Ehiza Ibilaldietako Espainiako Kopa Gaztela-Mantxan egin berri da, eta bertako partaideek emaitza onak lortu dituzte. Laxaro Oyarbide Master mailako txapeliduna izan da eta Jose Manuel Aizpurua bosgarren postuan sailkatu da beteteranoen mailan. Iraitz Oyarbide urnietarrak ere postu ona lortu zuen, sailkapen orokorrean 15. postuan geratuta.



EUSKALTEL

## Iturria, Kataluniako Voltan

**TXIRRINDULARITZA** World Tourreko txirrindularitza, goi mailakoa, Kataluniara begira dago. Volta lehiatzen ari dira eta bertan da Mikel Iturria Euskaltel Euskadi taldeko urnietarra. Goi mailako lasterkariak parte hartzen ari dira, besteak beste, Pogacar eta Landa. Bi izen horiek nabarmendu ziren lasterketaren hasieran. Igandera bitarte, RTVEN ikusgai izango da zuzenean.



Urnietako  
udala





Ainara Arratibel, Patri Pinedo, Eva Gutierrez, Reyes Carrere eta Toñi Lopez. AIURRI

# Klubaren eskertza bidegileei

**ESKUBALOIA** Emakumezkoen eskubaloian iraganak eta orainak duten garrantziari buruz hausnartzeko eta etorkizuneko oinarriak finkatzeko antolatu zuten ekitaldia Basteron, larunbatean

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Eva Gutierrez eta Olatz Olmedo Leizaran klubeko zuzendaritza batzordeko kideek hartu zuten hitza, ekitaldiari hasiera emateko. Taldearen ibilbidean hasierako urtetan jardun zuten emakumeak goraipatu zituzten. "Emakume horiek, oso kontzientziaz izan gabe, erabaki garrantzitsuak hartu zituzten norabide zehatz baterantz. Emakume horiek, jakin gabe, beste emakume askoren etorkizuna osatu zuten. Ez zuten hasiera erraza izan, eta gogor borrokatu behar izan zuten emakumeen kirolak ikusgarritasuna izan zezan. Trakabak traba, ondorengoei bidea erraztu digute, eskubaloia berriak baino modu askeagoan praktikatu dezagun. Oso harro gaude lortu zutenagatik, eta eskerrak eman nahi dizkiegu izan zirenen, diren eta izango diren guztiei".

**Ikus-entzunezkoaren aurkezpena**

Taldeko atzoko eta gaurko jokalariek 2023ko urtarrilaren 7an jokatu zuten topaketa triangelularren gaineko dokumentala aurkeztu zuten. Ia ordu erdiko iraupena duen ikusentzunezkoak, jokalaria beterranoen entrenamenduak, txapelketako jokaldi ikusgarrienak eta jokatu osteko ospakizuneko irudiak biltzen ditu.

Joxe Mari Igarategi arduratu da muntaketaz. Gidoigileak, berriz, Idoia Colomo, Olatz Olmedo, Jaione Lacalle eta Esther Imaz izan dira.

**REYES CARRERE, PATRI PINEDO ETA TOÑI LOPEZ JOKALARI OHIAK HIZLARI ARITU ZIREN**

Ondoren, Reyes Carrere Bera Berako jokalaria eta entrenatzaile ohiak, Patri Pinedo Bera Bera eta Itsasoko jokalaria ohiak eta Toñi Lopez Leizarango jokalaria eta entrenatzaile ohiak mahaingurua osatu zuten, Ainara Arratibel Berriako kazetariak zuzenduta. Ibilbide luzea eta oparoa osatu dute eskubaloian hiruek ere, eta solasaldi jakingarria osatu zuten. Arratibelek mahairatutako gaiei erantzunez, kirolak berdintasunaren bidean topatu izan dituzten oztopoak eta burutu behar izan dituzten borrokak izan zituen hizpide, batik bat.

**IKUS-ENTZUNEZKOA ZEIN SOLASALDIA, BIAK, BIDEOZ IKUSGAI DAUDE AIURRIREN WEBGUNEAN**

**Etorri eskubaloia ezagutzera**

<b>ESKUBALOI JARDUNALDIAK</b>	9:30-11:00	<b>Alebinak</b> 2012 / 2013
<b>MARTXOAK 25 eta 26</b> ALLURRALDE KIROLDEGIA	11:30-13:00	<b>Benjaminak</b> 2014 / 2015

Ez du Inskripziorik behar

**KONTZEJUPEKO XII. TXAPELKETA HERRIKOIA**

- ! Txapelketa partitak Kontzejupean jokatu eta, partitak gogoratu
- ! Partidak aste barruan jokatu eta, astero eta astero irabazten dituzten txapelketak irabazten dira
- ! Txapelketa aplikazioan hasiko da eta finala San Juanetan izango da, jaietan kalera (Kontzejupean) abiaraziko da.

Aurkeztu: martxoak 29  
Izen-ematea: 10€ bikotekoa

Julen: 688 864 888  
Mikel: 688 560 689



## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 21

**ANDOAIN Bisitaldi gidatua**  
EmPoderArte Emakume Artisten Nazioarteko Elkartearen erakusketa, bertako artistekin batera.  
19:00, *Bastero*.

**ANDOAIN Plenoa**  
Udalaren osoko ohiko batzaraldia.  
19:00, *Bastero*.

**ANDOAIN Bozketa**  
Sanjuanen hasierako txupina nork jaurtiko duen erabakitzekeo prozedura martxan du Udalak. Lehen fase honetan proposamenak aurkeztu behar dira.  
Azken eguna: *Apirilak 12*.

## OSTIRALA 22

**ANDOAIN Antzezlana**  
"La sed del minotauro", elebitan. La sed del minotauro antiheroiez mintzo da, izaki nahigabetez eta apur bat desesperatuez, zoria konkistatzeko borroka galtzeko beldurrari aurre egiten dioten izakiez, gizon eta emakume sendo eta bihotz handikoez. Khea Ziater konpainiaren proposamen berriena da.  
20:30, *Bastero*.

## LARUNBATA 23

**URNIETA Zuhaitz landaketa**  
Porrotx eta Marimotots pailazoek emandako pogoaren landaketa.  
10:30, *Kiroldegiaren ondoan*.



Astoreka, Pikaza eta Orbe aktoreak. AIURRI

**URNIETA Antzerkia**  
"Yerma, La dramática errante". Antzezlana seme-alabarik izateko ezintasunari aurre egin behar dioten emakumeen hitzak biltzen ditu. Aktoreak: Ane Pikaza, Aitor Borobia, Loli Astoreka, Leire Orbe, Unai Izquierdo.  
Martxoak 24, igandea. 19:00, *Sarobe. Gaztelera*.

**ANDOAIN, URNIETA Korrika**  
Aduna aldetik iritsiko da, Andoain zeharkatuz eta Urnietarantz abiatuz. Xehetasunak eta orduetgia 8-9 orrialdeetan.  
*Bazkalostean*.

## IGANDEA 24

**URNIETA Antzerkia**  
"Yerma, La dramática errante".  
19:00, *Sarobe. Gaztelera*.

**ANDOAIN Bertso-saioa**  
Sahararen alde. Amets Arzallus, Sustrai Colina, Oihana Iguaran, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta Lierni Rekondo.  
12:00, *Bastero*.

**BAIONA Korrika**  
Azken ospakizuna. Eskualdetik bus zerbitzua eskainiko dute.  
*Egun osoan*.

## ASTELEHENA 25

**ANDOAIN Basteroko saioak**  
Izaro Basteron ariko da. Sarrerak martxoaren 20tik eskuragarri daude, bazkideentzat. Publiko orokorarentzat martxoaren 25etik aurrera, ohiko bideetatik.  
*Udaberriko programazioa*.

**URNIETA Odol-emaileak**  
Odola emateko hitzordu berria Urnietan.  
16:30-20:30, *Plazido Muxika*.


## Osasun publikoa

Larunbatean, jendetza elkartu zen Donostian, Osasun Publikoaren defentsan. Beste hiriburuetan bezala, ehunka herritar irten ziren kalea. Gipuzkoako herri eta eskualde mailan antolatutako plataforma ugari elkartu ziren Donostiako kaleetan, pentsiodunen ordezkariekin batera. Adierazpen batekin amaiera eman zioten hitzorduari.




AIURRI

## ZINEMA



**ANDOAIN**  
**BASTERO**  
**Tratamos demasiado bien a las mujeres**  
Lar, 23. 19:30, 22:00.  
Ig, 24. 19:30.

Ast, 25. 19:30, 22:00.  
**Luca**  
Lar, 23. 17:00.  
Ig, 24. 17:00.  
**Cazafantasmas: Imperio helado**  
Martxoak 30-Apirilak 2. 19:30.



## SINOPSISIA



**Tratamos demasiado bien a las mujeres**  
Zuzendaria, gidoia: Clara Bilbao. Aktoreak: Carmen Machi, Antonio de la Torre, Julian Villagran, Luis Tosar, Oscar Ladoire, Gonzalo de Castro, Isak Ferri... **Herrialdea:** Espainia (2024). **Hizkuntza:** Komedio. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 93 min.

## Kritika onak jaso dituen filma

1945eko udazkeneko zorigaitzoko egun batean, ihes egindako makien talde batek iruzur egiteko ideia izan du. Remedios Buendiak, ilusioz beterik, bere emaztegai

soinekoa probatu du. Klasifikatzen zaila den filma da, kritika onak jaso dituena. Espainiako aktore ezagun asko agertuko da pantailan.

**AIURRI**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

**Aiurri astekaria apirilaren 11n itzuliko da berriro.**

Martxoaren 29an eta apirilaren 5ean ez da Aiurri astekaria argitaratuko

**OPORRALDI ON, IRAKURLE!**

**www.aiurri.eus**





AIURRI

## Eskolarteko bertso-saioa, Kotoi elkartean

Martxoaren 8an izan zen besterik, Andoainean. Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa, esaterako. Berrogeita hamar lagun inguru bildu ziren Kotoi Elkartean, eta toki eta une aproposa izan zuten bertsolariek kanturako. June Aiestaran (GoiBe-Haritz), Xuban Uralleta (Earra), Nikola Iraola (Earra), Jare Bengoetxea (Haritz), Peru Alijostes (Xenpelar)

eta Eñaut Olarra (Haritz) aritu ziren bertsoan, Asier Iriandoren aginduetara. Antolatzaileen arabera, "saio ona osatu zuten seiek ere, urduritasunaren gainetik ale ederrak utziz. June Aiestaran beasaindarra gailendu zen". Txalotzekoa da ere Kotoi elkarteko lana. Hirugarren saioa Legazpiko Muruazpi elkartean jokatu zen.



AIURRI


## MERKATU TXIKIA

### LANA

Pertsona baten bila gabiltza Andoaingo taberna batean lan egiteko. Lanaldia: 10 ordu astean. Asteleheneretik ostiralera 2 goiz (bakoitzean 3 orduko lanaldia), ostegun arratsaldeak (2 ordu) eta hamabost egunean behin igande goiz bat (2 ordu): 675 989 610.

### ORDU ALDAKETA

Udako ordutegia estreinatuko dugu martxoaren 31n: goizeko ordu bietan, hirurak izango dira.



### AIURRI ASTEKARIA

Ostiral Santuan eta Pazko Asteko ostiralean ez da astekaririk argitaratuko. Aiurri.eus martxan izango da.

## ZORION-AGURRAK

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik!

- **www.aiurri.eus**  
"Zorion agurrak" atalean
- **diseinua@aiurri.eus**  
Mezua idatzi posta elektronikora: izen-abizenak, herria, eguna.
- **Arantzibia 4-5, behea**  
Etor zaitetz bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.
- **Whatsapp bidez:** 619 163 537.

## ODOL-EMAILEAK

### HITZORDUA

**Martxoak 25, astelehena. URNIETA**  
Plazido Muxika enparantza:  
16:30- 20:30.



FERNANDEZ

## Inauterietako argazki-lehiaketa

Axerien Puska Biltzean ateratako argazkia izango da 2025eko Andoaingo neguko festak iragartzeko eskuorriaren irudi nagusia. Inauterietako argazki lehiaketaren saria Imanol Fernandez andoaindarra irabazi du. 350 euroko saria eskuratu du.



**berria**  
ERREMONTEA TXAPELKETA 2024

Beus jaiotz! Berria  
▶ **Erremontea:** YouTube bideoa  
@orlamendemerrotia

**MARTXOAK 22 OSTIRALA 17:30EAN**  
**GALARRETA JAI ALAI HERNANI**

**1. PARTIDA (3. EGUNA)**

JABALERA - GOIKOETXEA VI vs  
SUSPERREGI - APEZETXEA

**2. PARTIDA (3. EGUNA)**

ANSA II - AZPIROZ vs  
EZKURRA II - BARRENETXEA IV

**3. PARTIDA (3. EGUNA)**

SEGUROLA - MARTIRENA vs  
ALDABE - JUANENEA



# Handitu zure aurrezkiak urratsez urrats

## Rural Kutxa *Aurrera* gordailua

Epe finkorako gordailua, 12 hilabetera, zure aurrezkiak ordaintzen dituen, **% 3,546eko UTB**arekin, honela:

Lehen hiruhilekoa  
**ITN % 3,50**

Bigarren hiruhilekoa  
**ITN % 3,50**

Hirugarren hiruhilekoa  
**ITN % 3,50**

Laugarren hiruhilekoa  
**ITN % 3,50**



**UTB**  
**% 3,546**

Epea: **12 hilabete**  
Interesak hiru hilean behin likidatuko dira

*Beti  
hurbil*

RURAL KUTXA VILLABONA  
Nueva, 43 · 943 69 07 80  
oficina.0250@ruralkutxa.com

RURAL KUTXA URNIETA  
Idiazabal, 30 · 943 59 60 04  
oficina.0268@ruralkutxa.com